



Haritz Lopez tolosarra eta Eneko Elola alegiarra atxilotu ditu Ertzaintzak

KARGUAK ▶ Hilaren 10ean Bilbon izan ziren istiluengatik «terrorismo delitua» egotzi diete bi gazteei

MOBILIZAZIOAK ▶ Alegian eta Tolosan izan ziren atzo; epailearen aurrean deklaratuko dute gaur ▶ 6



Alegiko elkarretaratzea. i. g.



Iberiar txotxongiloei begirada berezia Aranburu jauregian

TOLOSA ▶ Tolosako 24. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren baitan, Iberiar Penintsulako txotxongilo esanguratsuenak bildu dituzte Aranburu jauregian igandera arte ikusgai dagoen *Iberiar txotxongilora leihoa* erakusketan. Espainia, Portugal eta Iberoamerikako txotxongiloak erakustea du helburu; argazkian, ikusgai dauden txotxongiloetako batzuk. i. TERRADILLOS ▶ 4-5

AMASA-VILLABONA ▶

ATEAk sanmartinetan egindako oilasko jokoa salatu du

Animalien babeserako legea «berriro hautsi» dutela dio elkarreak ▶ 3

BIYOK

PARAFARMAZIA



Haur elikadura • Haurtzaintza
Gizon-emakumezkoen kosmetika

Nafarroa etorbidea 12 behea
TOLOSA

Tel.: 943 11 95 04

ASTEASU ▶ EUSKARA

Euskara biziberritzeko plana martxan

Aholkularitza talde bat sortzetik hasiko dira, ekimena aurrera eramateko

ESTI EZEIZA

Asteasuko Udalak euskara biziberritzeko martxan jarri duen egitasmoa herritarrei aurkeztu zieten herenegun. Ekitaldiak kokatzeko balio izan zuen, hala, SIADECO enpresako Juanjo Allur eta Loinaz Azurmendik orain arte Asteasun bildutako zenbait datu plazaratu zituzten. Hauek arduratuko dira, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ekimen honen kudeaketa eta ko-ordinazioaz.

SIADECOKo kideen esanetan, «biziberritze plan hau au-

rrera eramateko, Euskararen Aholku Batzorde bateratu beharra dago». Hau, Asteasuko eragileetakoek, elkarteetakoek nahiz herritarrek osatuko dute. Hala, hemen parte hartu nahi duenak, bihar baino lehen izena eman beharko du udal-txean.

Aholkularitza taldea gehie- nez 10 pertsonen osatuko dute, eta egitasmoaren bultzatzaileen asmotan abenduaren erdialderako hasiko dira bile- rak egiten. Ekimen berri hone- kin, informazio-trukea ere bi- deratu nahi dute sustatzaileek, izan ere, «askotan Udalar-



Aurkezpenen, SIADECOKo Juanjo Allur eta Loinaz Azurmendi, Iñaki Amenabar alkaterarekin batera. E. E.

urruti geratzen zaizkio elkarte- en eta herritarren errealtate- ak».

Aholkularitza talde honen helburua Asteasurako plan es- tratetikoa idatzi, kontrastatu eta Udal nahiz herritarrek on- tzat ematea da. Oraingoz, Aste- asun euskarak bizi duen egoe- rari buruzko datu kuantitatibo- ak kontrastatu dituzte herritarrekin. Uztailen egin- dako bilera honetan kaleratu- tako kezka besteak beste on-

dorengoak izan ziren: jende- asko etorri dela kanpotik, eta hauetako batzuk ez direla eus- kaz integratu eta euskaraz le- hen adina hitz egiten dela, bai- na naturaltasuna eta freskota- suna galdu duela.

SIADECOK, orain arteko az- terketaren ostean ateratako ondorioen arabera, indargu- neen artean daude herritarren %80a euskalduna dela eta hauetatik hiru laurden euskal- dun zaharrak direla. Gainera,

orain arte, euskararen erabile- rak naturaltasuna izan du. Ahuleziei dagokionean, hita- noa eta lehen aiptatutako natu- raltasuna galduaz doaz. Bes- talde, herritar batzuk ez dira integratzen, eta 40 urtetik go- rakoen artean euskaldunen portzentaia jaitxi egiten da. Bestalde, arazoaren beste mu- turrean dagoen kezketako bat da, herriko gaztetxo batzuek ez dutela gaztelania behar bezala menperatzen.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Gerontologikoaz eztabaidatzea eskatu dute herritar ugari osoko bilkuran

Abenduan gaia aztertuko dutela agindu die alkateak plataformakoei

E. EZEIZA

Gerontologikoaren inguruko eztabaidak aurrera jarraitzen dute. Herenegun, herritar ugari bildu ziren Tolosako udaletxe- ko batzar aretoan, gai honi buruz «osoko Bilkuran hitz egin zedin» eskatzeko.

Gerontologikoaren aldeko plataformak plenoa baino egun batzuk lehenago mozio bat aurkeztu zuen, Euskal Herria Plazako egoitza zaharrare-

kin zer egin erabakitzeke, eta alderdi politiko ezberdinek arazo honen inguruan pentsa- tzen zutena jakiteko. Baina erantzun gisa jaso zuten, «es- kaera hau epez kanpo egin zu- tela». Horregatik, herenegun eztabaidatu beharreko gai zerrendan ez zen Gerontologi- koarena sartu. Hala, alkateak agindu zuen, «abenduan egin- go dugun hurrengo bilkuran gai hau bakarrik aztertzen saiatuko gara, edota gai ze-

rrendako lehenengo gaia izan- go da». Bilkura honetan zehaz- tuko dira ere, Udalak maiatze- an aurkeztutako proiektu be- rriaren xehetasunak.

Plataformako kideek eske- rrak eman zizkieten bilkurara joandako herritarrei. Bestalde adierazi zuten, itxaron zerren- den arazoa gero eta larriagoa dela, horregatik, lehenbaile- hen konponbide bat bilatu be- harra dagoela. Gainera, «ze- hazki» jakin nahi dute alderdi



Jende ugari bildu zen herenegun osoko bilkuran. ov

bakoitzak zer pentsatzen duen, honek, datorren urteko bozke- tan eragina izango baitu». Dena den, beraien esanetan, mozia aurkezteko bete beha-

rreko epeak eta baldintzak errespetatu zituzten. Eta ez dute beraien errutzat jotzen, gai hau bilkuran eztabaidatu ez izana.

hilberria ▶

Isidro Iturzaeta Goenaga

Atzo hil zen, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren

—Goian bego—

Joan zara
gu joango gara
baina hemen
gauden bitartean
ez zaitugu inoiz ahaztuko

Joxe eta Lourdes

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzetea GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Zizurkilgo Andre Mari parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Akezko Errota
Oharra ▶ Gorpuztze berritua Tolosako Funeraria
Vascongada Beilatokian dago.

ZIZURKIL, 2006ko azaroaren 30ean

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldekoahitza.info

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

AMASA ▶ GIZARTEA

ATEAk sanmartinetan egindako oilasko jokoa salatu du

Animalien babeserako legea «berriro hautsi» dela dio Animalianganako Tratu Etiko baten Aldeko elkarteak

ERREDAKZIOA

ATEAk (Animalianganako Tratu Etiko baten Aldeko elkarteak) Amasako San Martin jaietan «egindako oilasko jokoa» salatu du. Animalien babeserako legea «berriro hautsi» dela azaldu dute prentsa ohar batean. «Ekitaldi gupidagabe hori festen egitarauetatik kanpo badago ere, elkartearen ustez Udalak ez ditu behar bezalako neurriak jarri ekitaldia sahisteko», adierazi du ATEAk.

Horrela, elkarteak Udalarri «exijitzen» dio honen aurrean

neurriak hartzeko hiru arlotan. Alde batetik, «oilasko jokoa prestatu, sustatu eta egin zutenei dagozkien zigorrak ezartzeari». Bestalde, «horrelako gertaerarik udalerrian berriro gerta ez dedin neurriak hartzea. Esaterako, festa horiei diru laguntzak ez ematea eta jaien egitarauaren kontrola ematea». Azkenik, Udalarren aldetik ekitaldi hori publikoki «gaitzestu eta berriro gerta ez dadin konpromezua hartuko duela esatea».

ATEAk bere oharrean azalduen duenez, Villabonako Uda-

lak oilasko jokoa «ez zuela diruz lagundu argudiatu dezake eta festa batzordeak egitarauan ez zegoela esan dezake», baina ekitaldia egingo zela «mundu guztiak zekien» eta administrazioaren eta herritarren «onespen inplizituarekin, azaroaren 9an Euskal Herriaren zoritzarrez oraindik bizirik dirauen tradizio odoltsuarekin bat egin zen».

Bakartxo Tejeria Villabonako alkateak egunkari honi adierazi dioenez, «Villabonako Udala zein herritarrek legea betetzera behartuta daude».

POLITIKA ▶



Bai Euskal Herriari herri ekimenaren eskualdeko kideek Adunan egindako agerraldiaren une bat. HITZA

Bai Euskal Herriari-k deia egiten du abenduaren 6ko manifestaziorako

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Bai Euskal Herriari herri ekimenak deialdia egin zuen, prentsaurreko bidez, abenduaren 6an Durango Nazio bat garelako euskal herritarren eskubideak errespetatu, autodeterminazioa lelopean egingo den manifestazioan parte hartzeko.

Herri ekimeneko kideek azaldu zuten, «Euskal Herria ukatua den nazioa da eta euskal herritarren eskubideak urratuta daude». Ukazio eta eskubide urraketa horien oi-

narrria «Espainiako Konstituzioa» dela diote. Horrela, abenduaren 6an, «Euskal Herriak zer ospaturik ez duenez, euskal jendarteari lanera eta ikasketetara normaltasunez joateko deia egiten diogu». Bestalde, antolatzen diren ekimenetan parte hartzeko deialdia luzatu zuten, Durangoko manifestazioan, esaterako. Autobusak antolatu dira bertara joateko eta ohiko lekuetan eman daiteke izena.

Euskal jendarteari nazio gisa aritzeko deialdia ere luzatu zien. «Euskal Herria nazio

gisa onartu, errespetatu eta nazio izatetik eratorzen diren ezaugarritze guztiak garatzeko aukera eskaini beharko du gaur gaurkoz eskenatoki berri batetara eramango gaituen transiziorako marko berriak».

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inketa. Abel Barriola Lau t'erdiko txapeldun ikusten duzu? Sartu webgunean eta eman zure botoa eta iritzia.

EUSKARA ▶

Euskararen alde, Otañon eta Jesusen Bihotzan

ERREDAKZIOA

Igandean, abenduak 3, Euskararen Eguna dela eta, Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolan aste honetan Euskararen Astea egiten ari dira eta bihar Jesusen Bihotza ikastolan —Zizurkilen eta Villabonan— hainbat ekitaldi egingo dituzte.

Otañon, gaur 10:00etan Juan Gorriti eskultorearen bisita izango dute HHko 1. eta 2. mailakoentzat, liburutegian. 12:00etan, *Juul* antzezlan,

5. eta 6. mailakoek egina. 15:00etan euskararen aldeko hitzarmena egingo dute. Bihar ere egingo dituzte ekitaldirik.

Jesusen Bihotza ikastolan ere antolatu dituzte biharko ekitaldi ugari. Maila guztiatako ikasleek parte hartuko dute. Marrazkiak, antzezpenak, jolasak eta abar luze bat egingo dute. Arratsaldean txokolatadarekin amaituko dituzte ekitaldirik: Villabonako HHkoek eta Zizurkilgoek ikastolan egingo dute eta LHkoek eta DBHkoek plazan.

VILLABONA ▶ POLITIKA

Miguel Zalakaini omenaldia

Miguel Zalakain preso politikoa Martuteneko espetxean hil zela 26 urte beteko dira gaur. Horren harira omenaldi ekitaldirik antolatu dituzte. Gaur bertan, manifestazioa egingo dute Villabonako plazatik abiatuta, 20:00etan. Bihar hitzaldia emango dute Gurea aretoan, 19:30ean hasita, euskal preso politikoen eskubideen defentsan jarduten duten abokatuek, mediku batek eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kide batek. Igandean, Belabietan omenaldia eta lore eskaintza egingo dute. Horretarako hitzordua egin dute 11:30ean kiroldegian. Ondoren bazkaria antolatu dute Zunbeltz elkarteak.

GIZARTEA ▶

Indarkeri sexistaren aurka, ekitaldirik

Anoetako eta Irurako udalek indarkeria sexistaren aurka ekitaldirik antolatu dituzte. Gaur *Nola kontatu ipuin ez sexistak umei* tailer praktiko egingo dute, 17:15ean, Anoetako Ikastolan. Bihar, zine-foruma egingo dute Irurako Ikastolako aretoan, 17:15ean. *Emakumeak eta beren autonomia: sentsazioak eta sentimenduak* izango da jorratuko duten gaia. Dokumental labur baten ondoren, solasaldia egingo dute gaian adituak direnekin.

VILLABONA ▶

Guraso eskolan izena emateko aukera zabalik

Villabonako Udalak guraso eskola antolatu du datorren urteko urtarrilean hasi eta maiatzera arte. Bi adin tarterri zuzendutako antolatuko dituzte, 0-10 urte bitarteko haurren gurasoentzat eta 11 urtetik gorako gazteen gurasoentzat. Lehenengo taldea asteazkenetan bilduko da, hamabostean behin, eta bi talde osatzeko aukera ere izango da. 11 urtetik gorakoak astelehenetan bilduko lirakete. Izena emateko epea bihar bukatzen da.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Ford Escort 1800. 16V. 9 urte. Egoera ezin hobean. Deitu zenbaki honetara: 687 22 57 07.

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko lantak eta teku. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuek deitu 943 65 41 43 telefono zenbakira.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldariak behar dira ospitaleetan eta ikastetxeetan. 943 31 37 82.

Gidariak behar dira Erakunde Publikoetan. 943 31 37 82.

Administrazio langileak behar dira Anoetan, Errenterian, Irunen eta Hernanin. Telefono zenbakia: 943 31 37 82.

24. TOLOSAKO NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA >

Iberiar txotxongiloei begirada

Igandera arte ehunka txotxongilo ikusteko aukera dago Aranburu Jauregian; Iberiar Penintsulako txotxongilo esanguratsuenak bildu nahi izan dituzte aurten

IRIGO TERRADILLOS

Tolosako 24. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren baitan, Iberiar Txotxongiloen Jaialdia erakusketara dago ikusgai egunotan. Aranburu Jauregian, igandera bitartean izango da aukera bertara joan eta 39 konpainiak, bildumagilek, erakundeek eta museok utzilaiko txotxongiloak gonatzeko.

Urtero herrialde jakin bateko txotxongiloen artea erakusteko Tolosako Ekimendek berrak antolatzen duen atal berezia, aurtengoan Iberiar azentua duten txotxongiloei eskaintzea pentsatu dute: «UNIM-Aren (Tolosan abenduaren 30a arte egiten ari den Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia) beste hitzar edo kontseilu batzefara joaten garenean herrialde edo eskualde gonbidatzaileko kulturaren presentia indartzea aurkitzen dugun bezala, guk Espainia, Portugal eta Iberoamerikako txotxongiloak noiztasunekin erakutsi nahi diegu mundu guztiak etorritako ikusle eta bisitariei.

Hala, Iberiar Penintsulako txotxongilo esanguratsuenak bildu dituzte, historikoetatik hasi eta gaur egungoetara heldu arte. Erakusketaren emaitzak, antolatzaileen arabera, «zedarri bat markatzen du, orain arte inoiz ez baita bildu Tolosako Aranburu Jauregian, hain neurri, aniztasun eta oso-tasuneko erakusketarik, horengatik, gure eskerrik beronen eman nahi dirizuegu, antolatzen dugun lan konplexuena izan diona aurrera ateratzen lagunduz duden guztiei.

Txotxongilo zaleentzat aukera paregabes da, beraz, Aranburu Jauregiko erakusketara. Bi solairutan banatuta, eta 9 gela desberdinetan zehar, hariak mugitu eta bizitza hartzeko irrikas dauden erakusketako animalekin, ezagunak naitez ezezagunak diren pertsonalekin, herriagariak, tristak nahiz helduagariak direnekin egungo dugu topo.

ERAKUSKETA >

ORDUTEGIA
Gaurtik ostiralera,
17:00etatik 20:00etara.
Larunbata eta igandea,
12:00etatik 14:00etara eta
17:00etatik 20:00etara.

TXOTXONGILOAK
Osketa, 39 konpainia,
bildumagile, erakunde eta
museok utzilaiko txotxongiloak
dago osatuta.



On Kixote. Sancho Panza eta On Kixote, Lleidako (Espainia) zentroak utziak. | 1



Gerra ondorengo txotxongiloen adibide bat. | 1



Eskelotoak. Harry V. Tozeren bildumako adibide bat, Bartzelonako Antzerki Institututik ekarria. | TERRADILLOS



Titiriteroak behetik maniatzen dituen bobongiloak, eta eskularru bezala jarrita maniatzen direnen adibideak. | TERRADILLOS



Egurrezko buruak. Hermenegildo Lanz-en egurrezko buruen adibide dira argazki honetan ikusgai ditugunak. Eskuz landuak dira. | 100000000



Portugalgo txotxongiloak. Alentejo eskualdeko bobongilo tradizionalen adibide da irudian duguna. Sortu ziren herriakatik hartu zuten izena. Heganen bidaz manipulatzen dira. | 100000000



Eskularru txotxongiloak. Bartzelonako Antzerki Institutuko bobongilo bilduma arizta da urtetan jendok utzilaiko materialari esker. Irudian, adibide bat. | 1



Gerlaria. Francisco Peraltak mota guztielako bobongiloak egiten ditu. Berak eta bere familia 40 urte daramatzate lanean. | 1



Eskularru txotxongiloak. Bartzelona Antzerki Institututik utzilaikoak dira bobongilo hauek. | TERRADILLOS



Sagutoak. Frederick-en sagutoak dira ikusgai ditugun hauek. Sei sagubo, goialdean dagoen saguari dira bobongilo hauek. | 100000000

POLITIKA ▶

Eneko Elola eta Haritz Lopez gazteak atxilotu dituzte

Hilaren 10ean Bilbon izandako manifestazioaren ondoren izandako istiluengatik «terrorismo delitua» egotzi diete: gaur epailearen aurrean deklaratu behar dute

ERREDAKZIOA

Atzo goizean, 07:30ak aldera Alegiko 19 urteko Eneko Elola atxilotu zuen Ertzaintzak bere etxean. Ordu beretxuan, Tolosan, Haritz Lopez gaztea. Herri-zaingo sailaren arabera, «auzitegi nazionalaren aginduz» egin zituzten atxiloketak.

Gaur epailearen aurrean deklaratu behar dute bi gazteek, Gasteizko beste hiru atxilotuekin batera. «Terrorismo delitua» egotzi diete bostei.

Askatasunak esan zuenaren arabera, ertzainek Alegiko Eneko Elola gaztearen senideei telefono dei baten bidez jakinarazi zieten atxilotua izan zela. Gasteizko polizia etxe batera eramango zutela ere jakinarazi zieten.

Hilaren 10ean Bilbon izandako «ordena publikoko istiluetan» parte hartzea leporatu diete bi atxilotuei. Dena dela, Jabier Balza Herri-zaingo sailburuak adierazi zuenez, «Bilboko istiluetan esan zen baten batek udaltzain bati isurkari bakoia isuri ziola, baina atxilotutako gazte hauek ez dute horrekin zerikusirik». Beraz, ez



Alegian elkartu ziren iluntzean herrikidearen askatasuna eskatzeko, herriko plazan. I. GARCIA

zaie delitu hau leporatu. Gainera, hainbat lekukok eta Bilboko Lurralde Auzitegiko epaileak ukatu egin zuten bertsio hori.

Ertzaintzak atzoko egunean zehar bost atxiloketa egin zituela ziurtatu zuen: gure eskualdeetan, Alegian bat eta beste bat Tolosan. Askatasunak Alegiko Eneko Elolaren eta

Haritz Lopezzen atxiloketak baieztatu zituen. Honen aurrean, Askatasunak mobilizazioetarako deialdiak egin zituen atzo «bi gazte hauen atxiloketak salatu eta beren askatasuna aldarrikatzeko». Alegiko plazan eta Tolosako Triangulo plazan izan ziren.

Askatasunak gogora ekarri

zuen «orduan ere gogor salatu» zutela «gezurren gainean eraikitako bertsio poliziala bere eginez, alderdi politiko ezberdinek hartu zuten jarrera».

Bilboko gertakariak

Hilaren 10ean Haika-Segi auziaren aurrean manifestazio

SALAKETA

Herrizaingo sailaren arabera, bi gazteei ez zaie Bilboko udaltzainei egindako ustezko eraso leporatu

bat egin nahi izan zuten, Unamuno plazan. Espainiako Auzitegi Gorenak Haika-Segi auziaren epaien aurkako helegiteak aztertuko zituela salatzean manifestazioa egin zuten Bilbon 400 lagun inguruk.

Manifestariak Guggenheimetik abiatu, eta PSE-EEren egoitzaren aurrera zuzendu ziren, baina iritsi baino metro batzuk lehenago, «Ertzaintza oлдartu egin zitzaie». Gazte bat hormaren kontra izan zuten hiru ordu laurdenez. Identifikatu, eta aske utzi zuten ondoren. Gero, ertzainek gazte bat atxilotu zuten, eta udaltzainek 18 urteko bat. Azken hau erietxera eramane behar izan zuten jasotako kolpeen ondorioz.

Geroago, manifestazioaren debekua eta Ertzaintzaren oлдartzea salatzean beste manifestazio bat egin zuten Plaza Biribiletik Zazpikaleetara, eta Arriaga aurrean bidea moztu zuten minutu batzuk. Gazte batzuek zabor edukiontzia gurutzatu eta su eman zieten. Artea, udaltzaino bati su ematen saiatu zirela ere entzun zen. Bilboko Udalak eta Herri-zaingo sailak gertaera hau salatu zuten, baina lekukoek aurrerago «horrelakorik ez zela gertatu» argitu zuten.

iragarki laburrak ▶

IKASTETXE PUBLIKOAK

Langileak behar dira. Garbitzaileak, sukaldariak, sukalde laguntzaileak eta atezainak behar dira. Telf.: 943 44 10 05.

UDALETXEETARAKO

LANGILEAK

Hainbat lanpostu. Lorezainak, elektrikariak, igeltseroak, operarioak, gidariak eta peoiak behar dira. Telf.: 943 44 10 05.

ZAINDARIAK

Museo eta artxiboetarako. Zaindari lanpostuak daude. Telf.: 943 44 10 05.

BEZERO ARRETA

Aireportuetan. Lanpostuak daude betetzeko bezeroen arreta sailean. Telf.: 943 44 10 05.

LASTER DEIALDIK

Lanpostu deialdiatarako prestakuntza. Suhiltzaileak, udaltzainak eta ertzainak prestatzeko dokumentazioa eta klaseak. Telf.: 943 44 10 05.

ADMINISTRAZIO

PUBLIKORAKO DEIA

Plaza hutsak daude. Laguntzaile, administratiboak, liburuzainak, harreragileak, telefonistak eta informatikariak. Telf.: 943 44 10 05.

HEZKUNTZA MINISTERIOA

2/06 Lege Organikoko lanpostu deialdiak daude laster.

Haurtzaindegiak, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza. Telf.: 943 44 10 05.

ELBARRITUA

Lanpostuak. Lanpostu libre finkoak daude. Telf.: 943 44 10 05.

OSAKIDETZA

4.000 plaza libre. Erizain laguntzaileak, geriatría laguntzaileak, zaindariak eta laborategiko laguntzaileak. Telf.: 943 44 10 05.

GIDARIK

Lanpostu finkoak. Gidariak behar dira lanpostu finkoak betetzeko. Telf.: 943 44 10 05.

BALIARRAIN ▶ KULTURA



Babarruna eta gaztainak Kultur Astean

Nerea Urbizu ▶ Baliarraingo Kultur Asteko bazkaria izan zen igandean. Frontoian egindako bazkarian jende askok hartu zuen parte. Babarrunak eta gaztainak izan zuten bazkarirako. Kultur

Asteko egitarauetako azken ekitaldia abenduaren 11n izango da. Izan ere, Txan Magoak Baliarrain bisitatuko du. 16:15ean haurrentzako merienda eta ondoren magoaren saioa izango da. N. LIZARTZA

LEITZA ▶ POLITIKA

Euskal Herriko egoera politikoa aztergai, osoko bilkuran

Iñaki de Juana presoaren eta konponbide demokratikoaren aldeko mozioak onartu zituzten iragan ostiralean

ERREDAKZIOA

Iñaki de Juana presoaren egoeraren eta konponbide demokratikoaren inguruko mozioak onartu zituzten pasa den ostiralean osoko bilkuran. Bertan partidu guztiak izan ziren, UPN bozkatzeko orduan atera bazen ere eta Larrainek proposatutako mozioak EAK eta Aralarek onartu zituzten.

Iñaki de Juana duela 20 urte atxilotu zuten eta 2004ko urriaren 25ean betea zuen legez zegoen espesete zigorra. Ez zuten askatu, ordea, eta «espetxean jarraitzearen» beste delitu berri bat egotzi zioten: Gara egunkarian argitaratutako bi artikulu idaztea, hain zuzen. Epaitu bitartean behin-behineko espesetealdian eduki zuten De Juana. «Espainiako auzi-sistemak asmatutako beste formula berri batzuen bidez», ia 13 urteko espesete zigorra ezarri zioten bi artikulu idazteagatik.

Abuztuaren 7an gose greban hasi zen bere egoera salatzeko eta dagozkion eskubideak aldarrikatzeko. 45 egun jan gabe eman ondoren, indarrez jatera behartu zuen epaitegiak, gose greba bertan behe- ra utziz. Orain, berriro, gose grebari ekin dio.

Hau dela eta, ostiralean

aprobaturako mozioan puntu hauek argi utzi zituzten:

Alde batetik, Iñaki de Juana ezarritako zigorra mendeakun eta injustizian oinarritutako zigorra dela. Eta, bestetik, bere eskubide guztiak errespetatuak izan daitezela eta ondorioz berehala kaleratua izan dadila. Hirugarren puntuan, Espainiako eta Frantziako agintariek euskal presoak txanpon truke erabiltzeari utzi diezaiotela, eta beren eskubideak onar ditzatela, hau da, Euskal Herriratzeara, gaixo dau denak askatzea eta dagozkien neurri aringarri guztiak aplikatzea exijitu dute.

Konponbide demokratikoa

Europako Legebiltzarrean Euskal Herriko egoeraren inguruan izandako eztabaidak «gatazkaren izaera politikoa azpimarratzeko balio izan dute», eta baita «Nazioarteko pertsonalitate ezagunek sinatu zuten adierazpenak» ere.

Konponbide politiko hauen protagonista hutsak goi-mailako politikoak soilik ezin izan daitezkeela onartuz, eta herritar xumeak eta eragileak ezin direla «gatazka goi mailetan noiz eta nola konponduko dutenaren zain egon» azalduz, ondorengo konpromisoa hartu

zuten ostiralean. «Herritarrek gara benetan gatazka politikoa demokratikoki konpontzeko interesa dugarak, gu garelako azken batean gatazkaren ondorio larrienak sufritzen ditugunak. Euskal Herri osoko eragileok eta herritarrok konponbide demokratikoaren bidean gure ahaleginak bateratu eta biderkatu behar ditugula pentsatzen dugulako, leitzarrok eta bertako eragileok ere gure konpromisoa adierazi nahi dugun».

Honen islada dira osoko bilkuran onartutako ondorengo lau ideia hauek: Lehen, Euskal Herria da konponbidearen protagonista nagusia. Interes partikular ezberdinen gainetik, alderdien arteko lehiaren gainetik, Herri osoaren interesak nagusitu behar dira. Bigarrena, elkarrizketa da konponbide demokratikoa eraikitzeko bidea. Euskal Herriko sentsibilitate guztiak hitza hartu behar dute prozesu demokratikoan, inolako bazterkerarik gabe. Hirugarrena, akordioak eraiki eta akordioak errespetatzea izan behar du prozesu honetan urratsak emateko oinarria. Eta laugarren, herriaren parte-hartzeari, bere erabakiari ateak irekitzea dela konponbide demokratikoaren azken helburua.

LEITZA ▶ AISIA

Mus txapelketa eta garagardo festa, Torren

Autodeterminazioaren aldeko mus txapelketa bihar hasi eta 29an bukatuko da



Torreko ataria. N. GARZIA

N. GARZIA

Torren hainbat ekitaldi presatu dituzte hilbeltzari aurre egiteko. Alde batetik, abenduko ostiralean egingen den autodeterminazioaren aldeko mus txapelketa antolatuta dute eta bestetik, garagardo festa, larunbat honetarako. Mus txapelketa bihar hasiko da eta abenduko 4 ostiralean jokatuko dute: 1ean, 15ean, 22an eta 29an. Abenduko 2. ostiralean ez da txapelketarik izanen, jai baita. Gaueko 22:30ean jokatuko da txapelketa eta bikote bakoitzak 8 euro ordaindu beharko ditu.

Lau sari izanen dira. Lehenengo, axuri bat eta bi ardo botila; bigarrena, lau txuleta eta bi ardo botila; hirugarrena, bi baserriko oilasko eta bi ardo botila, eta azkenik, gazta bat eta bi ardo botila.

Honetaz gain, autodeterminazioaren aldeko mus txapelketari amaiera emateko, abenduaren 29an, bi lagunentzako afari eder baten zozketa egingen da parte-hartzaile guztien artean.

Garagardo festa

Etzi, abenduaren 2an, Torren ospatuko den garagardo festarako txartelak salgai jarri dituzte Torren bertan, bihar arte.

Afaria gaueko 21:30ean izanen da, Torren bertan, eta 22 euro balio ditu. Honen barruan menua sartzen da: saltxitxak eta sahieskia entsalada eta patata purearekin, limoi sorbetea eta kafea eta kopa.

Afaldu ondoren Dj. Bullek bere musikarekin festa alaituko du.

hitza **txokoa** *lagunen*

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon *o s a g a i a k*
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

AGENDA ▶

23. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA

Tolosa. Gaurko egitaraua: Mexikoko Marionetas de la esquina taldeko Leidor antzokian *Una luna entre dos caras*, 12:00etan, 15:00etan eta 18:30ean. Kasinon, Galiziako Artello taldearen *De fabula* 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan. Kultur Etxean, Argentinako El Nudo taldearen *Un tigre en el gallinero* 10:30ean, 15:00etan eta 17:00etan. Ferialekuan, txekiar errepublikako Naive The Liberec taldearen *El caballero sin cabeza*, 11:00etan eta 15:00etan. Eta gune berdinean, Andaluziako (Espainia) La canela taldearen *La salida*, 20:30ean eta 22:30ean (helduentzako saioa).

DEIALDIAK

Ibarra. Kultur Truke Hamabostaldiaren baitan Ibarako Kultur Etxean, 18:00etan eta 20:00etan, *Fatimeu, basamortuko deia* bideo emanaldia (54min.) Ibarako Udalak antolatuta.

ZINEMA

Tolosa. Zine-forumeko gaurko saioa berezia izango da, hain zuzen film musikal bat eskainiko dute: *Melodias de Broadway*, Minellirena zuzendariarena, eta txuri beltzean. Emanaldiak bi izango dira: 19:15ean eta 21:45ean, Leidor antzokian.

Villabona. Zine-klub saioa, Gaztetxean, 22:00etan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Abenduaren 10era arte Pilarxo Elosegiren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira. Asteartetik igandera bitarte izango dira ikusgai, tabernako ordutegi bera izanik.

Alegia. Azaro Kulturalaren baitan argazki erakusketa berezia ezarri dute: David Apreak prestatutako *idi probak* ikusgai, Alegiko Kultur Etxean, abenduaren 5era arte.

Tolosa. Igandera arte, *Iberiarra leihoa* txotxongiloen erakusketa ikusgai Aranburu



Bonberenean, Atila y los Unos taldearen kontzertua

TOLOSA ▶ Hogei urte daramatzate eskenatoki gainean Atila y los Unos musikari beterranoek. Oraindik ere hasierako taldekide berek jarraitzen dute taldean: Jesus (*Atila*), abeslaria; Javi, baxua; Iñaki, gitarra; Xabi, bateria; Koldo, teklatura; eta Rober, *rototoiekin*. Bada, bihar Bonbereneako taula gainera igoko dira bihar, 22:30ean. «Zuzeneko taldetzat» jotzen dute beren burua. Abeslaria «showman»

bat da, eta abestien arabera mozorrotu egiten da. «Jendearekiko komunikazioa» bilatzen dute, «entzuleek parte-hartzea, animatzea eta dantza egitea». Taldearen «helburua ez da milaka disko saltea, baizik eta ongi pasatzea eta jendearengana musika bidez hurbiltzea». Horregatik, nahiago dituzte jende gutxi biltzen dituzten eskenatokiak. Biharko kontzertua egoki da horretarako. HITZA

jauregian, 24. Nazioarteko Txotxongilo jaialdiaren baitan.

Ibarra. Ostiralera arte Kultur Truke Hamabostaldiaren baitan, bost artisten erakusketa, Kultur Etxean

GUARDIAKO FARMAZIAK


Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaro azuoa, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aratz Alkain (Amezketak). Gaur 3 urte. Zorionak etxekoan partetik. Bereziki Joseba eta Garazik.

URTE ASKOAN
Aratz (Amezketak). Urte askoan eta mukutuok zure arreba Garaziri. Aiako familiak.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...



ESTILO LIBURUA

Argi eta egoki idazteko, oinarriko tresna

ZURE LIBURU DENDAN **25€**

berria

Harpideduentzako eskaintza berezia: **20€**

Eskariak egiteko Tel.: 943 30 43 45 harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, BIZI EUSKARAZ **berria**